

# B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

# Jantziak sortzeko modelatze tekniketara hurbiltzea

Miguel Elola

Ereduak sortzeko eta patrioiak egiteko *moulage* tekniketara hurbiltzeko aukera eskainiko du *masterclass*aren eduki teorikoak, eta eduki horren garapen praktikoak, berriz, prozesu horien metodo espezifikokoak gauzatzeko helburua edukiko du. Parte hartzaileek ezagutza praktikoak berengana ditzaten, diseinu baten prozesu osoa egitea proposatuko da.

# Eskola magistrala hiru saiotan egituratuko da, eta, bertan, eduki hau landuko da:

ESKOLA MAGISTRALAREN ETA PROGRAMAREN AURKEZPENA

MODELATZE TEKNIKA: SARRERA ETA ERAKUSTALDIA

- A. Modeloak maniki baten gainean sortzeko teknikaren oinarriak
- B. Berme eta ainguratze motak, eta errefortzu eta egitura motak
- C. Bermatzeko lerroen eta lerro osagarrien trazadura
- D. Oihala jartzea eta plomatzea
- E. Formak zuzentzea eta araztea

OIHALEN ETA MATERIALEN AZTERKETA. AUKERAK ETA MUGAK

PATROIAREN GARAPENA

- A. Oinarrizko patroia lortzeko metodoak
- B. Oinarrizko patroia teknika eta garapena

PATROIA FINTZEA

- A. Oinarrizko patroia zuzentzea eta fintzea
- B. Proben garapena eta erabilera

JANTZIA MOZTEA

MUNTATZEA ETA JOSTEA

AKABERAK

- A. Akaberen azterketa
- B. Jantzia lisatzea

# Miguel Elola Recondo

## Miguel Elola Zaragueta

Miguel Elola Recondo donostiar jostunak, Cristóbal Balenciagaren dizipulu eta modaren alorreko izen handien kolaboratzailea izan denak –hala nola Pedro Rodríguezena–, izango du eskola magistrala emateko ardura, Miguel Elola Zaragüeta semearekin batera.

Miguel Elola Recondok ibilbide luzea du jostun gisa. Hamahiru urtez baino gehiagoz Balcázar larru-dendaren diseinatzaile gisa jardun ondoren, bere *atelierra* sortu zuen Bartzelonako hiri zaharrean, eta Goi mailako Joscintzan aritu zen.

Miguel Elola Zaragüetak, bestalde, Cristóbal Balenciaga eta Pedro Rodríguezen eragina jaso zuen, aitari esker. Apendiz gisa hasi zen, 16 urte zituela, familiaren tailerrean, eta bertan jarraitzen du gaur egun. Guerrero eta Felicidad Duce eskoletan prestatu zen diseinatzaile eta patroigile gisa; izen handiko etxeetan osatu zuen bere prestakuntza, hala nola Antonio Miró eta Santa Eulalia, eta, gerora, freelance jardun du Skin Selección, Infocsa eta abarretan.

Irakaskuntzan dihardute biek, eta modelatze, patroigintza eta Goi Joscintzako eskolak ematen dituzte, besteak beste Felicidad Duce Diseinu eta Modako Goi Mailako Institutuan.



## INFORMAZIOA

### DATAK

2019ko azaroaren 1etik 3ra.

### ORDUTEGIA

oak 1, ostirala:

15:00 - 20:00

azaroak 2, larunbata:

10:00 - 14:00 / 15:00 - 20:00

azaroak 3, igandea:

10:00 - 14:00

### HIZKUNTZA

Gaztelania.

### PARTE-HARTZAILEAK

Moda Diseinuko eta Patroigintzako eta Joskintzako ikasleak edo tituludunak, modaren alorreko profesionalak, eta modelatze teknikekin zerikusia duten ezagutzak ikasteko edo horietan sakontzeko interesa duen edonor.

### PARTE-HARTZAILE KOPURUA

Gehienera 20 lagunek parte hartu ahalko dute. Parte-hartzaileen hautaketa bat egingo da, eskatutako dokumentuen arabera, eta urriaren 7tik aurrera jakinaraziko da plazen esleipena.

### BALDINTZAK

Interesdunek joskintzako tekniketan erdi mailako ezagutzak eduki beharko dituzte eta horiek egiaztatu.

### IZEN-EMATEA

Eskola magistralaren berri ematen den egunetik irailaren 26ra bitartean (hori barne) eman ahalko da izena. Interesdunek izena online emateko inprimakia bete beharko dute. Horrez gainera, motibazioa azaltzeko gutun bat aurkeztu beharko dute, eta bertan adieraziko dute jarduera horretan zer interes duten eta edukiarekin zer lotura duten. Azkenik, curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute, modaren esparruko prestakuntza eta esperientzia zehaztuz.

### PREZIOA

170 €. Museoak emango du ariketak egiteko beharrezkoa den oihala. Parte-hartzaileek, bestalde, josteko oinarrizko tresnak ekarri beharko dituzte (guraizeak, jostorrazak, orratzak, hariak, zinta metrikoa, marka-harria, etab.).

### PLAZA MUGATUAK

#### IZEN-EMATEA BEHARREZKOA DA

Ez bada parte-hartzaileen gutxieneko kopurua lortzen, jarduera bertan behera utziko dela jakinaraziko zaie interesdunei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokionean.

### HARREMANETARAKO

T +34 943 004 777

info@fbalenciaga.com

Laguntzaileak



kutxa kultur  
moda  
kutxa FUNDAZIOA

rafael  
Matías  
*Fundazioa desde 1957*

ALFA

Gütermann

# B

## CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Aldamar Parkea 6  
20808 Getaria - Gipuzkoa - España  
T 943 008 840  
info@crislobalbalenciagamuseoa.com  
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz – 71km  
Bilbao – 81km  
Donostia / San Sebastián – 25km  
Iruña-Pamplona – 97km  
Vitoria-Gasteiz – 83km

GPS  
43° 18' 6.92" N  
2° 12' 18.77" W

